

---

## PRENTSA OHARRA

---

### **Aguraingo Udalak Ubalzako planta fotovoltaikoari alegazioak aurkeztuko dizkiola iragarri du**

Proiektuak balio estrategiko handiko 14 hektarea hartzen ditu

2024-02-09 Agurain. Aguraingo Udalak gaur iragarri du alegazioak aurkeztuko dizkiola Ubalzako planta fotovoltaikoari. Proiektu hori gaur argitaratu da ALHAOn, eta Agurain eta Iruraiz-Gauna udalerrietan 40.000 eguzki-panel inguru jartzea aurreikusten du. Horrela, 30 eguneko epea irekitzen da aurretiazko administrazio-baimenari eta ingurumen-inpaktuaren adierazpenari alegazioak aurkezteko.

Joan den abenduan, Aguraingo udalbatzak mozio bat onartu zuen Cañaveras Solar enpresari eskatzeko proiektua berrikusteko eta balio estrategiko handiko nekazaritza-lurren 14 hektareak kentzeko. Hala aitortzen du Nekazaritza Foru Sailak 2023ko uztailean egindako txosten batek. Guztira, Ubalzak 50 hektarea inguruko azalera hartuko du.

Abenduan onartutako idazkian, Aguraingo Udala kezkatuta agertu zen proiektu horrekin. Enpresak bere planak azal ditzan, Aguraingo Udalak Cañaveras Solar enpresari eskatuko dio udalerrian batzar irekia deitzeko.



## **El Ayuntamiento de Agurain anuncia que presentará alegaciones a la planta de fotovoltaica de Ubalza**

El proyecto incluye 14 hectáreas de tierras de alto valor estratégico

09-02-2024 Agurain. El Ayuntamiento de Agurain ha anunciado hoy que presentará alegaciones a la planta fotovoltaica de Ubalza, un proyecto que se ha publicado hoy en el BOTHA y que prevé la instalación de cerca de 40.000 paneles solares en los términos municipales de Agurain e Iruraiz-Gauna. Se abre así un período de 30 días para la presentación de alegaciones a la autorización administrativa previa y a la declaración de impacto ambiental.

El pasado mes de diciembre, el pleno municipal de Agurain aprobó una moción en la que se solicitaba a la empresa Cañaveras Solar que revisara el proyecto y eliminara del mismo las 14 hectáreas de tierra agrícola calificadas como de alto valor estratégico. Así lo reconoce un informe elaborado por el Departamento Foral de Agricultura en julio de 2023. En total, Ubalza ocupará una superficie de alrededor de 50 hectáreas.

En el escrito aprobado en diciembre, el Ayuntamiento de Agurain mostró su preocupación por este proyecto. Con el objetivo de que la empresa explique sus planes, el Ayuntamiento de Agurain solicitará a Cañaveras Solar que convoque una asamblea abierta en el municipio.